

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Hezur-haragizko Osaba Sam

ARLINGTON (MASSACHUSETTS, AEB), 1766KO IRAILAREN 13A. Garai hartan Menotomy esaten zitzaion herrian, eskoziar jatorriko familia baten baitan, Samuel Wilson jaio zen. 23 urte zituela, anaia Ebeneszerrekin batera, New Yorkeko Troy hirira joan zen bizitzera eta hainbat negoziotan jardutera. 1797an Betsey Mannekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Wilson 1854an hil zen, 87 urte zituela eta Troyko Oakwood hilerrian dago chortzita. Halako biografia arrunteko gizona, nolatan iritsi zen munduko lehen potentziaren sinbolo izatera?

1812an, ingelesen aurkako gerra piztu zenean, Sam Wilsonen haragia paketatzekeko negozio joria zuen. Iparraldeko frontean armada estatubatuarra haragiz hornitzeko kontratua lotu zuen gobernuarekin. Haragia upeletan sartu eta eramaten zuen, baina upelen jabea AEBetako gobernuaren zenez, U.S. (United States) inizialez markatuta zuden. Soldaduek, laguntarientan, *Uncle Sam* (Osaba Sam) esaten omen zioten Wilsoni eta, hala, brometan, upeletako inizialak haragi hornitzailearen ezizenari zegozkiola esaten hasi ziren. Txantxa



ahoz aho zabaldu zen lehenik eta, ondoren, papelean jasota geratu zen; terminoa lehenengoz Frederick Augustus Fidfaddy idazleak jaso zuen *The Adventures of Uncle Sam in Search After His Lost Honor* izenburuko lan alegorikoan eta, bertan, benetako *Uncle Sam* Wilson zela aipatzen zen.

Handik ehun bat urtera, 1917an, James Montgomery Flagg ilustratzaileak Lehen Mundu Gerrarako soldaduak errekrutatzeke afixa diseinatzekeo enkargua jaso zuen. Ordurako AEBetako gobernuaren sinbolo ezaguna zen Osaba Sam irudikatzea erabaki zuen, kapela luzean AEBetako banderaren izarrak zituela eta hatz erakuslea ikusleari zuzenduta. Modeloaren

lana aurreztu asmoz, Flaggek bere burua marraztu zuen, ile eta bizar zuria erantsita, itxura serioagoa emateko. “*I want you for U.S. Army*” leloa gehituta, inoizko kartelik ezagunenetakoa osatu zuen. Lehen Mundu Gerran lau milioi kopia inguru inprimatu zituzten eta Bigarren Mundu Gerran ere erabili zuten gazteak gerrara eramateko.

Duela 50 urte, 1961ean, AEBetako 87. Kongresuak ofizialki onartu zuen Osaba Sam sinboloaren atzean benetako pertsona bat zegoela, hau da, hezur-haragizko –batez ere, haragizko– Osaba Sam Samuel Wilson okela-paketatzailea izan zela.

Arrastoak

Ez da frogatu Leninek tsarra exekutatzeko agindu zuenik

NIKOLAS II.A TSARRAREN eta bere familiaren hilketen auzia berriro ireki dute 1993tik bosgarrenez, tsarraren ondorengoez eskatuta. Oraingo honetan ere, historialari eta adituek ez dute frogarik aurkitu hilketak Leninek berak edo eskualdeko arduradun

komunistaren batek agindu zituela baieztatzekeo. Hala ere, auzitegi gorenak ondorengoen eskakizunetako bat ase du: orain arte, familiari gertatutakoa “hilketa soiltzat” jo dute ofizialki, baina hemendik aurrera estatuko errepresioaren biktimatzat joko dira.



WWW.EN.ACADEMIC.RU